



B

BATEKIN

Gizarte Partaidetza
Participación Social

Elkartearen fitxa

● Elkartearen izena: **Medicus Mundi Araba**

● Esparrua (bakar bat aukeratu) :

Komunitarioa	Gizarte bazterketa	Dibertsitate Funtzionala	Garapenaren aldeko lankidetzak
Ingurumena	Babes zibila	Soziosanitarioa	Emakumea eta Genero berdintasuna
Giza eskubideak	Adikzioak mendekotasuna	Osasuna	Kirola
Hezkuntza eta Prestakuntza	Animaliak babestea	Immigrazioa	Kultura
Gazteria eta denbora librea	Euskararen sustapena	Bidezko merkataritza	

● Erakundearen azalpen laburra: (4 lerro)

Medicus mundi araba irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Ez dago botere publikoen mendean, ezta ezein erakunde edo talde ekonomiko, politiko eta erlijiosoren mendean ere. Mundu bidezkoagoaren aldeko lanean eta elkarlanean ari garen pertsona talde batek osatzen dugu, herri ahulenen eta pobreenen osasun eta giza egoera hobetuta, eta herrialde pobretuetako nahiz gure ingurune hurbileneko bidegabekeriak eta desberdinkeriak salatuta. Bazkideok, boluntariook eta teknikariok lankidetzan ari gara Ruanda, Peru eta Ekuadorreko komunitateek egiten duten ahaleginarekin, haien giza garapena sustatzeko, betiere osasunaren sustapenean arreta berezia pausatuta. Bizi garen mundua eraldatu nahi dugu, jendearen elkartasuna eta konpromisoa sustatuta, pobrezia errotik desagerrarazteko eta OSASUNA pertsona guztien eskura dagoen eskubide bat izan dadin lortzeko.

● Boluntarioen programa:

Boluntarioak behar ditugu gure Bidezko Merkataritza Dendan aritzeko. Pío XII kaleko 18an dago Gasteizen. Establezimendu honetan Bidezko Merkataritzako produktuak saltzen ditugu (artisautza, oihalak, elikagaiak...). Baina denda askoz ere gehiago da. Informazio eta sentsibilizazio gune bat da, eta Kontsumo Arduratsuari nahiz Bidezko Merkataritzari buruzko tailerrak eta hitzaldiak ematen ditugu, bi tresna horiek egokiak baitira pobrezia aurka borrokatzeko eta jende guztiak Osasunerako duen Eskubidea egiazki gauzatzeko.

Boluntarioek zeregin hauek egiten dituzte:

- Bidezko Merkataritzako produktuak saldu.
- Bezeroei informazioa eman produktuen kalitate eta kalitateari buruz, bai eta produktuak ekoizten dituzten kooperatiba edo ekimenei buruz ere.
- Denda eta erakusleioa apaintzea, eta logistika orokorreko lanak egitea.
- Jarduerak eta ekimenak proposatu eta antolatzea bai dendan bai dendatik kanpo.
- Azoka edo/eta salmenta edo informazio ekitaldietan parte hartzea.



● Egunak eta orduak:

Dendak merkataritza-ordutegia du: goizetan, astelehenetik ostiralera, 9:30 - 13:30, eta arratsaldeetan, 17:00 - 20:00. Baina, boluntarioen konpromisoa pertsona bakoitzaren desio eta aukeren arabera ezartzen da. Badago txanda bat edo hainbat egiteko aukera: goizean edo arratsaldean; ordu gehiago edo gutxiago, egun gehiago edo gutxiago...

Noizbehinka, bilerak egiten dira boluntario guztiekin dendari buruzko gaiak aztertzeko. Arratsaldez beti.

● Betebeharrak: (adin nagusikoa izan beharra, formazioa...)

Pertsona saiatuak, sortzaileak eta konprometituak.

Gizarte kezkak eta giza eskubideen aldeko gizarte konpromisoa izatea.

18 urtetik gorako edonor.

● Harremanetarako: (kontakturako pertsona, telefonoa, emaila, helbidea)

Carmen Biain

Los Isunza kalea, 9. 1. eskuin

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

carmen.biain@medicusmundi.es

945 288031

● Beste Informazioa:

Ordainez, hauxe eskaintzen dizugu:

Talde zoragarri eta dinamiko batean sartzea

Konpromisozko hitzarmen pertsonalizatu bat eta boluntario-aseguru bat sinatzea elkarre barruan egingo dituzun jardueretarako.

Baliabideak eta tresnak eskainiko dizkizugu zure boluntariora egin ahal izan dezazun.

Arlo hauekin lotutako gaietan prestakuntza emango dizugu: Kontsumo Arduratsua, Bidezko Merkataritza, Ur eta Osasunerako Eskubideak, Sexu eta Ugalketa Eskubideak, genero-ikuspegia, etab.

